



HAURRAK ETA

MUSIKA II:

**Ikasten eta
irakasten**

HAURRAK ETA MUSIKA II

Adina: LHko lehen zikloa, 6-8 urte.

Saioak: aurkezten diren sarrerako bloke eta lan espezifikoko atalen edukiak osatu arte, hezitzaileak hautatzen duen saio kopurua.

Gutxieneko saio kopurua: 12 saio (sarrera, lan espezifikoa eta amaiera-bloke bakoitzeko jarduera bana).

Saio kopuru egokia: "lan espezifikoa" blokean proposatzen diren jarduerak osatu edo edukiak barneratu arte.

Saioen iraupen-proposamena: 45 min.

Proposamenaren justifikazioa:

Irakasleen zailtasun handienetako bat musikaren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan gaiaren abstraktutasuna da. Gure ikasleen entzumenak bereizten ez dituen edo nekez jasotzen dituen entzutezko pertzepzioei loturik dago abstraktutasun hori. Izan ere, normalean, gure ikasleen entzumena ez da gai pertzepzio horiek bereizteko.

Baxua eta altua kontzeptuen, tinbrearen, intentsitatearen, iraupenaren, ñabarduren, errepikapen melodikoen, esaldi musikalaren, kadentziaren, artikulazio-zeinuen eta beste gauza askoren gaineko manipulazio- eta prozedura-ikaskuntza (partziala, beraz) lor dezakegu kasurik gehienetan. Material osagarri honek, gure ikasleek, kontzeptu horiek benetan garrantzitsu bihurtzen direnean, hots, entzuteko orduan, egiazki barneratzen eta aplikatzen dituztela laguntzeko egina dago.

Landuko diren gaitasunak:

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna

Ikasten ikasteko gaitasuna

Matematikarako gaitasuna

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

Informazioa lantzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna

Norberaren autonomia eta ekimenerako gaitasuna

Helburu didaktikoak:

1. Kantu baten edo musika-lan baten pulsu- eta azentu-kontzeptuak sentitzea, barneratzea eta ikaslearen errepertorio psikomotor eta musikalera biltzea.
2. Kantu edo musika-lan bat esalditan eta erdiesalditan banatzen dela ikastea, osotasun egituratu eta ordenatu batez jabetzeko atariko gisara.
3. Musika-elementu xume batzuk bereiztea eta interpretatzea (isiluneak, ñabardurak, ostinatoak), kantuan edo musika-lanean duten adierazpen- eta interpretazio-eginkizunaz jabetuz betiere.
4. Kantuak abestea, intonazio egokia eta lagunekiko afinazioa aintzat harturik eta pulsuari zein konpasari egokiro jarraikiz.
5. Kantu tradizionalak eta herrikoak ikastea, material hori balioestea eta hura zaintzen eta hedatzen laguntzea.
6. Musika-gaitasunez jabetzen laguntzen duten zenbait elementuz baliatzea — besteak beste, dantza, instrumentuak jotzea eta intonazioa—, eta musika-trebezia eta -ezagutzetara biltzea.
7. Musikaren parametroak jorratzea eta sendotzea: iraupena, tinbrea, altuera eta intentsitatea.
8. Pulsua eta azentua sendotzea, kontzeptu eta jarduera gisara.
9. Lan edo pieza baten musika-gaiak ikusiz eta entzunez bereiztea, bai eta haren forma orokorra ere.
10. Orkestrako instrumentuetako batzuk bereiztea, ikusiz eta entzunez.
11. Melodia eta akonpainamendua ezagutzea eta elkarrengandik bereiztea.
12. Musika-elementu berriak ezagutaraztea ikasleei; adibidez, anakrusia edo errepikapen-zeinuak.
13. Banaka zein taldeka aritzea.
14. Abestuz eta dantzatuz ongi pasatzea.
15. Psikomotrizitatea lantzea.
16. Komunikazioa lantzea.
17. Haurrengan konfiantza-giroa sortzea.

Edukiak:

- Ahotsa, haren lengoaia eta kantua.
- Zenbait material, objektu eta instrumenturen bidezko soinu-iturriekin ematen diren harremanak.
- Soinuaren iraupena, intentsitatea, altuera, tinbrea eta abar.
- Entzunezko pertzepzioa eta pentsamendu musikala.
- Ikusmenaren, entzumenaren eta higiduraren adierazpen- eta sentsibilizazio-bide gisara erabiliz mugimendua, norberaren gorputza, erritmoaren zentzua eta harreman sozialak lantzeko edukiak.

<ul style="list-style-type: none"> – Psikomotrizitatea lantzeko mugimenduak – Dantza – Abestiak 	
<p>Jardueren sekuentzia:</p> <p>A. Hasierako fasea:</p> <p>B. Gauzatze-fasea:</p> <p>C. Amaierako fasea:</p> <p>D. Ebaluazio-fasea:</p>	<p>1. atala (Ongi etorria)</p> <p>2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10. atalak</p> <p>11., 12., 13. atalak</p>

Material didaktiko honetan proposatzen diren edukiak jardueren sekuentziari jarraituz ordenatuta azaltzen dira. Horrela, irakasle edo hezitzaileak bere ikasleen, beharren edo jakin-minaren arabera antolatu ahal izango ditu saioak hainbat konbinazioen artean.

Lehenengo blokean proposatzen den ekintza saioari hasiera emango dion ekintza izango da, irakasleak ongi etorria emango baitigu eta ondoren egingo den jardueran sartzen lagundu. Horrek ikasleen artean ohitura bat sortuko du, irakaslea azaltzen den bakoitzean musikarekin jolastu eta gozatzera doazela antzemango baitute.

Behin ikasleak horretarako prest daudela, hezitzaileak hobesten dituen edukiak lantzeko edo barneratzeke atala aukeratuko da. Horretarako izango ditugu "Intentsitatearekin jolasten", "Tinbrearekin jolasten", "Altuerarekin jolasten", "Iraupenarekin jolasten", "Musikogramak" "Erritmoa lantzen", "Musikarekin, gozatzera", "Abesten, abesten" eta "Musika-notazioak". Atal horietako bakoitzak eduki desberdinak, baina era berean beren artean osagarriak direnak lantzeko aukera emango digute.

Azkenik, egindako lan guztiaren ondoren amaiera-fasea. Horretan, aurretik egindako lanaren araberrako jarduera bat aukeratuko dugu. Ikasleak aurrez oso adi eta kontzentratuta eduki dituen ekintza batean aritu badira, "Dantzara" edo "Jolasten" blokeak hauta daitezke bukaerarako; baina, aldiz, oso mugituta aritu badira, "Erlaxapena" izan daiteke aukera egokia.

Bloke hauekin osatutako saio-adibidea aurkeztuko da ondoren:

- ✓ Ongi etorria
- ✓ Erritmoa lantzen

- ✓ Musikarekin, gozatzera
- ✓ Erlaxatzea

A. HASIERAKO FASEA

Opari handia da gure txikiekin lan egin eta elkarrekin musikaz gozatzera. Hori horrela izan dadin, aurkezten diren saioen egiturak, ahal den neurrian behintzat, aldaezina izan behar du, bere egitura eta antolaketa mantendu behar dira. Aldatzen dena saioak dituen ariketak dira.

Saioaren hasiera eta amaiera oso garrantzitsuak dira, lehenengoak haurtxoari musikarekin jolasean hasiko dela jakinaraziko baitio eta bigarrenak saioa bukatu dela. Horretarako saioei sarrerako abestiarekin emango zaie hasiera. Horrela, haurrek jakingo dute egitera goazen jarduerak musikarekin zerikusia duela.

Horrez gain, irakaslea izango denez gure gidaria eta laguntzailea jarduera bakoitzean, haren aurkezpena eta agurra garrantzitsuak izango dira. Saio bakoitzari abestiarekin emango diogu hasiera:

“Musikarekin jolasten gara, abentura asko... ”

B. GAUZATZE-FASEA

Haurrek proposatzen den gaiaren inguruan dituzten aurretiazko ezagutzak aztertu ondoren, landu nahi direnak musikaren bidez modu dibertigarrian aurkeztuko ditugu. Horretarako, azpigai bakoitzean metodologia berdina izango da:

- Abestia adi entzun
- Abestia entzun eta ikasten saiatu
- Abestia ikasitakoan denok elkarrekin abestu edo beste behin entzun

7.1. MUGIMENDU SINPLEAK

Kaixo lagunok, gaur erritmoa landuko dugu. Badakizue modu askotara egin daitekeela eta perkusio txikiko instrumentuekin egitea oso gustukoa izaten dugula, baina... oraingoan instrumentua gure gorputza izango da!

1. JARDUERA:

Egin dezagun denon artean biribil handi bat. Lehendabizi, guztiak elkarrekin, 4 taupadako erritmo batean, oinekin lurra kolpatuko dugu. Oin bakarrarekin egingo dugu:

1,2,3,4

1,2,3,4

Ondoren, 4 silabako hitz bat pentsatuko dugu eta hori esatearekin batera, bi eskuekin izterrak kolpatuko ditugu. Pentsatu al duzue? Ea ba:

1,2,3,4

1,2,3,4

Oraingoan, zuetako bakoitzak hitz berdineko edo desberdineko bat esanez banaka, banaka, 4ko erritmoa egingo du, baina beti taupada errespetatuz. Aurrera!

2. JARDUERA:

Oraingoan musikarekin egingo dugu! *Gospel Jazz* izeneko abestia entzungo dugu lehendabizi:

(abestia entzun)

Entzungo duzuen bezala, abestiak 4 zati ditu:

- Lehenengo zatian oina lurrean kolpatzen
- Bigarrenean eskuak izterretan
- Hirugarrenean txaloak
- Laugarrenean kriskitinak

3. JARDUERA:

Oraingoan abesti berberarekin zuek izango zarete artistak eta mugimendu librean ariko zarete. Hori bai, gogoan izan 4 taupadak berdinak izan behar direla eta hortik aurrera nahi bezala aritu zaitezketela. Ongi pasa!

C. AMAIERA-FASEA

Saioan zehar egin den lan espezifikoa ikasleak arretaz entzuten izan badira ere, dantzan eta jolasean aritu direla kontuan izanda, saio honen amaiera-faserako “Erlaxapena” jarduera hautu egokia izan daiteke. Kasu honetan *Loa Loa* abestia hartuta, haurrak bakarka beren lekutxo bilatu eta erlaxatzera bideratuko ditugu:

LOA, LOA TXUNTXURRUN BERDE

Kaixo!!! Ziur nago eguna hara eta hona, ekintza pilaz beterik izaten ari garela, lagunok. Zenbat gauza desberdin egin ditugun gaur... eta zein ongi ari garen pasatzen gainera! Baina nik uste dut pixka bat lasaitu eta erlaxatzeko ordua iritsi zaigula.

Egitera goazena etxean ohera sartu eta abesti bat entzun edo melodia eder bat abesten digutenean bezalakoa da. Erlaxa gaitzen... bilatu dezagun gelan lekutxo bat lasai egoteko, etzan gaitzen eta entzun dezagun lasai, lasai abesti polit hau.

Zuetako asko konturatuko zineten: bai, guraso askok beren seme-alabei lotara doazenean abesten dieten abesti bat da, *Loa, Loa Txuntxurrun Berde*. Baina kontuz eee, etzazue lo hartu ...

Ea ba, zuen lekutxora joan eta presta zaitezte, musika laster hastera doa eta ... 3,2,1... itxi itzazue begiak, lasai, eta erlaxa gaitzen...

D. EBALUAZIO-FASEA

Jarduera hauen guztien ebaluazio-irizpide nagusia hurren parte-hartzea da, eta horrekin batera ekintzaren arrakasta. Izan ere, hurrek abestiak abestu, eskatzen diren keinuak egin eta horrez gain ongi pasatzen badute, helburu garrantzitsuena lortuko dugu.

Garrantzitsua izango da, era berean, garatu nahi ditugun kompetentziak lantzen ote ditugun aztertzea. Hala nola elkarrekin zein bakarka lanean aritu diren ikustea (Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia), norbanako moduan zein taldean egoki komunikatu diren aztertzea (Komunikazio linguistiko eta literariorako kompetentzia) edota barruan duten artista txikia azalarazi duten ikustea (Kultura humanistikoan eta artistikoan kompetentzia, mugimendurako kompetentzia).

Ezin ahaztuko ditugu azkenik, jarduera horientzat jarri ditugun helburu didaktikoak. Horiei erantzuna bilatzeko, galdera hauek egin ditzakegu:

- ✓ Ongi aritu al dira bakarka zein taldeka?
- ✓ Psikomotrizitatea landu al dugu?
- ✓ Lortu al dugu haur bakoitzak barruan duen artista azaleratzea?
- ✓ Lortu al dugu 7. gaien landu nahi zen erritmoa hobeto ezagutu eta lantzea?

BALIABIDEAK

Proposatzen diren saioak eta jarduerak pentsatuta daude baliabide urriko geletan egingarriak izan daitezen. Hala ere, beti izango da egokiagoa hurrentzat proposatutako ekintzak inguru erosoan egitea. Egokiak izango dira horretarako musika gela zabalak eta mugimendu askeak egitea ahalbidetuko dutenak.

Baliabide teknikoei dagokienez, gomendagarriak dira:

- ✓ Ordenagailua
- ✓ Soinu-ekipoa
- ✓ Proiektatzeko kainoia
- ✓ Proiektatzeko pantaila